

UDALBATZA OSOA

Bilkura-akta

Ohiko bilkura

Data: 2016ko irailaren 14a, asteazkena.

Ordua: 20:00ak.

2016ko urriaren 13an akta onesteko bilkuran egindako oharrak biltzen ditu.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, adierazitako egunaren 20:00etan, Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV) alkate udalburu jauna buru dutela, honako zinegotzi jaun-andre hauek bildu dira Udaltzaren osoko bilkura egiteko: Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion).

Bilkura eratu den unean bertan ez zeuden zinegotziak: Agustín Hervías Salinas (PP), Luis Felipe Campos Latre (PP), Dolores Ruiz Zuazo (PP), Diana Rubio Lafuente (PP) eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra da bilkurako idazkari.

Alkate-udalburu jaunak deitu du bilkura, alde zuzen eta arazko publikitatearekin. Honako hau da

Eguneko aztergaien zerrenda

1. Onestea 2016ko uztailaren 13an eginiko ohiko bilkuraren akta.
2. Onestea 2016ko abuztuaren 31n eginiko ezohiko bilkuraren akta.
3. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.
4. **Kultura, Turismoa, Jaiak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Batzordea.**
 - 4.1. Oioneko Eh Bildu taldearen mozioa, Arabako Mahastiak/Viñedos de Álava JDBari buruzkoa.
5. **Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Batzordea.**
6. **Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Batzordea.**
7. **Ekonomia, Ogasuna eta Enplegua, eta Hirigintza Batzordea.**
 - 7.1. Oioneko Eh Bildu taldearen mozioa, Mandela arauarekin bat egiteari buruzkoa, eta EAJ-PNVren zuzenketa.
 - 7.2. 456 zenbakiko ordutegi-akta, Ertzaintzak 2016ko uztailaren 31n, 7:20an egindakoa.
 - 7.3. "Kiroldegia hobetzeko lanak: autokarabanan aparkalekuko obrak" izenekoak kontratatze espedientea.
 - 7.4. "Bazterra aretoa berritzeko" obrak kontratatze espedientea.
 - 7.5. Oioneko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko zazpigarren aldaketa puntuala, OY.29 b.11-10 antolamendu-zehaztapenari, LITALSarentzat industria-zorua hedatzeari buruzkoa.
 - 7.6. Behin betiko onestea Oioneko hirigunea Erabat Zaharberritzeko Plan Bereziko 4. aldaketa puntuala.

Azken puntua) Eskerak eta galderak.

Bilkuraren izaerarekin eta eguneko aztergaien zerrendarekin bat etorritik, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira:

- 1. Onestea 2016ko uztailaren 13an eginiko ohiko bilkuraren akta.**

Alkate-udalburu jaunak aktari oharrrik egin nahi dioten galdetu die zinegotzi jaun-andreei. Ez da oharrrik egin.

Hau erabaki da:

1) 1) Onestea 2016ko uztailearen 13an eginiko bilkuraren akta.

Aldeko botoak: 6 (sei); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion).

2. Onestea 2016ko abuztuaren 31n eginiko ezohiko bilkuraren akta.

Alkate-udalburu jaunak aktari oharrrik egin nahi dioten galdetu die zinegotzi jaun-andreei. Ez da oharrrik egin.

Hau erabaki da:

1) 1) Onestea 2016ko abuztuaren 31n eginiko bilkuraren akta.

Aldeko botoak: 6 (sei); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion).

3. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.

Idazkari jaunak, alkate-udalburu jaunak hala eskatuta, Alkatetzaren dekretu eta ebazpenen berri eman du, zehazki aurreko ohiko bilkuratik aurrera emandakoenak: 2016ko 142/16tik 188/16ra bitartekoak. Idazkariak hori egin bitartean, Campos Latre jauna (PP) bilkurara iritsi da.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditu dira.

4. Kultura, Turismoa, Jaiak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Batzordea.

4.1 Oioneko Eh Bildu taldearen mozioa, Arabako Mahastiak/Viñedos de Álava JDBari buruzkoa.

Alkate jauna: gure proposamena hau mahai gainean uztea da. Batzar Nagusietan gai honi buruzko oinarri zabaleko adostasun politikoa lortuko zain gaude...

Villanueva jauna: mozioa uztailean aurkeztu genuen... Mozioa osoko bilkura honetara ekarri dugu eztabaidatzeko eta bozkatzeko. Mozioaren puntuak nahiko argiak dira; helburua da ekimen hori politikoki babestea.

Alkatearen proposamena, hau da, gaia mahai gainean uztea, bozkatu dute. Hau izan da emaitza:

Aldeko botoak: 4 (lau); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV) eta José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV).

Abstentzioak: 1 (bat); Luis Felipe Campos Latre.

Aurkako botoak: 2 (bi); José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion).

Gaia mahai gainean uztea erabaki dute.

5. **Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Batzordea.**
6. **Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Batzordea.**
7. **Ekonomia, Ogasuna eta Enplegua, eta Hirigintza Batzordea.**

7.1. Oioneko Eh Bildu taldearen mozioa, Mandela araukin bat egiteari buruzkoa, eta EAJ-PNVren zuzenketa.

Alkate jauna: jakinarazi du EAJ-PNV taldeak Oioneko Eh Bildu taldearen mozioari, Mandela araukin bat egiteari buruzkoari, jarritako zuzenketa kenduko duela.

Villanueva jaunak Oioneko Eh Bildu taldearen mozioa, Mandela araukin bat egiteari buruzkoa, irakurri du.

Campos Latre jauna: talde politikariok ez ditugu arau horiek berdin interpretatzen; hala ere, uste dugu berme bat direla.

Hau erabaki da:

- 1) Onestea Oioneko Eh Bildu taldearen mozioa, Mandela araukin bat egiteari buruzkoa. Hau da mozioaren edukia:
 - a. Oioneko Udalak bat egiten du “Mandela arauak” izenez ezagunak direnekin. Arau horiek Nazio Batuen Biltzar Nagusiak onetsi zituen, 2015eko abenduan. Espainiar estatuko botere publikoei eskatzen zaie oso-osorik onar ditzatela, preso dauden pertsonen giza eskubideak errespetatzearen aldekoak baitira eta kartzelan igarotako garaiak garapen pertsonalerako aukera izan daitezen defendatzen dutelako, presoa aske gelditzea komunitatearentzako onura izan dadin.

Aldeko botoak: 6 (sei); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV) José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion).

Abstentzioak: 1 (bat); Luis Felipe Campos Latre.

7.2. 456 zenbakiko ordutegi-akta, Ertzaintzak 2016ko uztailaren 31n, 7:20an egindakoa.

Alkateak 456 zenbakiko ordutegi-aktaren berri eman du; Ertzaintzak egin zuen 2016ko uztailaren 31n, 7:20an. Ordutegi-aktan esaten denaren arabera, ikuskatzea egin zen unean, 7:20an, lokala irekita zegoen eta barruan 30 (hogeita hamar) pertsona zeuden. Gainera, jende gehiago sar zitekeen eta edariak saltzen jarraitzen zuten. Dituen ezaugarriak direla eta, lokal horri dagokion ixteko ordua 6:30ak dira. Ikus-entzuneko ekipoa martxan zegoen. Makinak ez zeuden martxan.

Halaber, jakinarazi da bi auzokidek zarata neurtzeko eskaera egin dutela; izan ere, adierazi dute zaratak ez diela atsedenik hartzen uzten. Dirudienez, Aldundiak aste honetan neurtuko du zarata.

Alkate jauna: gai hau osoko bilkurara ekarri dugu talde guztiek zer iritzi duten adierazteko aukera izan dezaten. Alkateak du zehatzeko eskumena; hala ere, taldeen ikuspegia ezagutzea interesgarria litzateke.

Villanueva Gutiérrez jauna: ez da ordutegia bete, eragozpenak sortu dira eta auzokideak kexu dira. Alderdien arteko harremana oso kaltetuta dago; egoera pertsonala gehiago ez okertzea gustatuko litzateke. Horrelakoak ez dira gustuko gauzak izaten. Zailena auzokide bat salatzea da, baina urrats hori eman beharra dago.

Campos Latre jauna: Villanueva jaunak argi azaldu du. Bat nator hark esandakoarekin.

Alkate jauna: kaltetuekin hitz egin dugu, eta akordio batera helarazten saiatu gara; bitartekari gisa jarduten saiatu gara. Hala ere, orain Ertzaintzaren akta bat dago, eta legeak zerbait egitera behartzen gaitu. Nire ustez, tabernaren jabeak egoeraren jakitun dira...

Villanueva Gutiérrez jauna: ni auzokidea izan banintz, ez dakit hainbesteko pazientzia izango nukeen.

Alkate jauna: zarata mugatzeko gailuaren proba egin da, baina, noski, gailu horrek bertara konektatzen diren gailuei baino ez die eragiten. Legearen arabera, urraketa arina izan daiteke, eta urraketa arinak zehapenak metatuz edo alternatiboki zigor daitezke, honako zehapen hauetako batekin edo gehiagorekin: ohartarazpena eta 1.200 euro arteko isuna. Proposatzen dugu 300 euroko isuna jartzea. Gainera, 62. artikuluko 5. atalak hau dio: udal batek ez baditu neurriak hartzen urraketa bat zehatzeko, nahiz eta udal horren esku egon zehatzeko eskumena, Eusko Jaurlaritzaren organo eskudunek, aurrez hori betetzeko eskatu ondoren, beharrezko neurriak hartu ahal izango dituzte urraketa horiek zehatzeko, udalaren ordeztu eta haren kontura.

7.3. “Kiroldegia hobetzeko lanak: autokarabanen aparkalekuko obrak” izenekoak kontratatzeko espedientea.

“Kiroldegia hobetzeko lanak: autokarabanen aparkalekuko obrak” izenekoaren finantza-plana onesteari buruzko alkatearen ebazpenaren berri eman da. Hau dio:

Aurrekariak:

1. 2016ko uztailaren 19an jakinarazi da onetsi egin dela “Kiroldegia hobetzeko lanak: autokarabanen aparkalekuko obrak” izeneko proiektua. Proiektu horri diru-laguntza eman zitzaion Obren eta Zerbitzuen Foru Planaren kargura (2016-17 programa).
2. 30/1992 Legeak, azaroaren 26koak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoak, ezarritakoari jarraikiz, finantza-plana aurkezteko hasiera batean eman zen epea luzatzeko eskatu da. Adierazitako egunean ez da luzapenari buruzko berariazko ebazpenik eman.
3. “Kiroldegia hobetzeko lanak: autokarabanen aparkalekuko obrak” izenekoaren finantza-plana. Proiektu horri diru-laguntza eman zitzaion Obren eta Zerbitzuen Foru Planaren kargura (2016-17 programa).

Hori dela eta, hau ebazten dut:

1. Onestea “Kiroldegia hobetzeko lanak: autokarabanen aparkalekuko obrak” izenekoaren finantza-plana. Proiektu horri diru-laguntza eman zitzaion Obren eta Zerbitzuen Foru Planaren kargura (2016-17 programa). Baliabide propioen 62.558,04 euro bideratuko dira obra hori finantzatzeko.

Ebazpena Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren Zerbitzuari igorri zaio, finantza-plana onar dezan eta kontratazio-izapideak hasi ahal izan daitezen.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditu dira.

7.4. “Bazterra aretoa berriztatze” obrak kontratatze espedientea.

Jakinarazi da Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren Zerbitzuari Bazterra aretoa berriztatze obra-proiektuaren ale bat igorri zaiola. COAVNek proiektu hori ikus-onetsi du eta Luis I. Hernández Mayoral arkitektoak idatzi du. Organo eskudunari eskatu zaio proiektuaren aldeko txostena eman dezala, martxoaren 4ko 75/2016 Foru Aginduaren C letran ezarritakoari jarraikiz.

Proiektua onetsi ondoren, obraren finantza-plana aurkeztuko da, hori onesteko eta kontratazioa gauzatzeko izapideak abiarazteko.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditu dira.

7.5 Oioneko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko zazpigarren aldaketa puntuala, OY29 b.11-10 antolamendu-zehaztapenari, LITALSArentzat industria-zorua hedatzeari buruzkoa.

Aurrekariak:

- 1) Hiri Antolamenduko Plan Orokorra puntualki aldatzeko espedientea, goi-mailako arkitektoak egindako eta LITALSAk sustatutako proiektu teknikoari jarraikiz. Erreferentzia: PGOUMod7AmpSueloindLITALSA.
- 2) Espedientea 2015eko urriaren 14an egin zen saioan onetsi zen hasiera batean, eta 1 (bat) hilabetez jendaurrean egon da, Udaleko iragarki-taulan, ALHAOn eta probintzian gehien saltzen den egunkarietako batean. Jendaurrean egoteko epean ez da alegaziorik aurkeztu.
- 3) 2016ko uztailaren 13ko bilkuran hartutako erabakiaren bitartez, onetsi egin da LITALSari dagozkion hirigintza-kargak arautzeko konpromisoa, udal-sare nagusietarako konexioa behar bezalako dela bermatzeko, Oioneko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko zazpigarren aldaketa puntuala dela eta.
- 4) Behin-behinean onetsitako agiriak martxoaren 4ko 57/2016 Foru Aginduan ezarritako baldintzak biltzen ditu; foru-agindu horrek, hain zuzen ere, Oioneko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko zazpigarren aldaketa puntualaren ingurumen-txosten estrategikoaren alde egiten du, hainbat baldintzarekin.
- 5) Arabako Errioxako Kuadrillaren zerbitzura dagoen goi-mailako arkitektoak sinatutako txostena eta Udaleko idazkariak sinatutako txostena ageri dira.
- 6) Txosten teknikoa ageri da.
- 7) Idazkariaren txostena ageri da.
- 8) Informazio Batzordearen saioan egindako proposamena.

Hau erabaki da:

- 1) Hasiera batean onestea Oioneko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko zazpigarren aldaketa puntuala, OY29 b.11-10 antolamendu-zehaztapenari, LITALSArentzat industria-zorua hedatzeari buruzkoa. Hasiera batean onesteko aurkeztzen den agiriak martxoaren 4ko 57/2016

Foru Aginduan ezarritako baldintzak biltzen ditu; foru-agindu horrek, hain zuzen ere, Oioneko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko zazpigarren aldaketa puntualaren ingurumen-txosten estrategikoaren alde egiten du, hainbat baldintzarekin

- 2) Espedientea organo eskudunari aurkeztea, azter dezan eta behin betiko onetsi ala ez ebatz dezan.

Aldeko botoak: 7 (zazpi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion).

7.6 Behin betiko onestea Oioneko hirigunea Erabat Zaharberritzeko Plan Bereziko 4. aldaketa puntuala.

Aurrekariak:

1. Oioneko Udalak, 2016ko uztailaren 21eko alkatearen ebazpenaren bitartez, erabaki zuen hasiera batean onestea Oioneko hirigunea erabat zaharberritzeko plan bereziko 4. aldaketa puntuala.
2. Espedientea 20 (hogei) lanegunez jendaurrean egon da, udaletxeko iragarkitaulan, Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, 2016ko uztailaren 22ko 83 zenbakikoan, eta “El Correo” egunkariaren Arabako edizioan, 2016ko uztailaren 22an. Jendaurrean ikusgai egoteko aldiak ez da alegaziorik aurkeztu.
3. Lurzorua eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Euskal Legearen 97.3 artikuluari jarraikiz, planaren administrazio-txostenaren eta txosten teknikoaren kopia oso bat igorri zen, 1 (bat) hileko epean txostena eman zezaten. Txostena loteslea izango da abiarazten-ebazpenetan ezarritako babes-erregimenari edo kultur intereseko higiezin behin betiko kalifikazioari dagokionez. Hilabeteko epea igaro ondoren, 2016ko irailaren 1ean, Kultur Ondarearen Zuzendaritzat txosten ez-loteslea igorri zuen.
4. Kultur Ondarearen Zuzendaritzaren txostena aginduzkoa da, baina ez da loteslea; izan ere BEPBaren aldaketak ez dio eragiten kultur intereseko ondasun higiezin behin betiko kalifikazioari.
5. Txostenean bertan ageri den moduan, Oioneko hirigune historikoa ez da monumentu multzo izendatu, ez du xedapen lotesledun araudirik.
6. Kultur Ondarearen Zuzendaritzaren txostenak gomendio hauek egiten ditu:
 1. gomendia: BEPBaren 4. ataleko partzelak multzokatzeko irizpide berria ez ezartzea, “kultur ondarea babesteko irizpideen ikuspegitik ez delako onargarria”.
 2. gomendia: zeramikazko teila “zeramikazko teila arabiarra edo bi kanaleko zeramikazko teila” gisa zehaztea, eraikuntzaren emaitzak aurretik dauden estalkien antzeko itxura eta testura izan dezan eta, hala, multzo historikoan integratuago egon dadin.
 3. gomendia: A3226ren ondoko 15. etxe sailaren lerrokatzea eraisteko proposamena ezabatzea.
7. 1. gomendioari dagokionez, proposatutako araudiak ezartzen du partzelak multzokatzeko lizentziaren eskaerarekin batera fatxaden kanpoaldeko osakeraren proposamena ere aurkeztu behar dela, eta bertan jatorrizko partzelen banaketa ageri behar dela. Gainera, partzelen arteko bereizketa mantendu egin behar da

teilatu-hegalen, fatxadako materialen, hutsuneen eta abarren bitartez. Multzokatzeak 360 metro koadro baino gehiagoko azalera badu, partzelak multzokatu aurretik xehetasun-azterketa bat onetsi beharko da. Partzelak multzokatze betebeharrak malgutzearen xedea da etxebizitza-sustapen txikiak egin ahal izatea, katalogoak sartutako hainbat elementu kontserbatzea errentagarria izan dadin eta biztanleak erabat zaharberrituko den gunera erakarri ahal izateko. Autosustapen eragiketek ez dute balio izan hiriguneko etxebizitzaren parkea berritzeko. Proposatzen da gomendioa aintzat ez hartzea, adierazitako arrazoiak direla eta.

8. 2. gomendioa aintzat hartzea proposatzen da.
9. 3. gomendioari dagokionez, gogorazi da BEPBren aldaketa ez dela eraiste-proposamen bat; proposatzen dena da eraikinetakoren bat ordezkatzeko denean lerrotatze berria ezartzea, gune horretan 2 metro zabal den espaloia jarri ahal izateko, hori ezartzen baitu irisgarritasunari buruzko araudiak. Eragina jasoko duten eraikinek ez dute interesik edo ingurumen-balio gisa sailkatuta daude; bai kasu batean bai bestean, egungo araudiak eraikin horiek ordezkatzeko aukera ematen du. Gomendioak ez du kontuan hartzen bidearen zati horren segurtasun-arazoak direla eta neskato bat hil egin dela eta beste mutiko bat guztiz desgaituta gelditu dela, istripuak direla eta. Administrazio honek ezin du berriz hiritartzeko gomendioa bete; izan ere, horretarako eskumena Arabako Foru Aldundiaren Errepide Zerbitzuak dauka.
10. Indarrean dagoen BEPBak, bere 51.1 artikuluan dio espaloiek gutxienez 3 metroko zabalera izango dutela ahalegindu behar dela. Aldaketa hauek egin arren, ez da zabalera hori lortuko. Proposatzen da adierazitako arrazoiak direla eta gomendioa aintzat ez hartzea eta 15. etxe sailarentzat aurreikusitako lerrotatzea mantentzea, aldaketak egiten direnean. Hiriko bidea galtzadarriz berriz hiritartzeari buruzko gomendioa Foru Aldundiko Errepide Zerbitzuari igorriko zaio.
11. Txosten teknikoa ageri da.
12. Idazkariaren txostena ageri da.
13. Hauek aplikatu behar dira: Lurzoru eta Hirigintzari buruzko Euskal Legea (ekainaren 30eko 2/2006), 97.3, 95.2 eta 95.5 artikulua; Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea (apirilaren 2ko 7/1985), 21.1j) eta 22.2c) artikulua.

Hau erabaki da:

1. Behin betiko onestea Oioneko hirigunea Erabat Zaharberritzeko Plan Bereziko 4. aldaketa puntuala, eta Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zuzendaritzak egindako txosteneko gomendio hau txertatzea: “zeramikazko teila arabiarra edo bi kanaleko zeramikazko teila”.
2. Behin betiko onesteko akordioa eta behin betiko onetsitako aldaketaren testu osoa argitaratzea Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean Halaber, behin betiko onesteko akordioa argitaratzea probintzian gehien irakurtzen diren egunkarietakoren batean eta udaletxeko iragarki-taulan.
3. Arabako Foru Aldundiari eta, zehazki, hirigintzaren alorrean eskumena duen sailari, jakinaraztea Oioneko hirigunea zaharberritzeko plan berezia behin betiko onetsi duela administrazio honek.
4. Horren berri ematea Eusko Jaurlaritzako Kultur Ondarearen Zerbitzuari.

Aldeko botoak: 7 (zazpi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion).

Azken puntua) Eskaerak eta galderak.

Campos Latre jauna: gobernu-taldeari gazteentzako etxebizitzaren inguruko ekimenik proposatu zaio? Alkate jauna: printzipioz, ez. Gogoan dut aurreko legealdian gobernu-taldeak Maritornes izeneko partzelan BOEak eraikitzeke ekimen bat artxibatu zuela.

Jorrazeko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 21:02an (bilkura 20:00etan hasi zen), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oionen, 2016ko irailaren 26an

Udaleko idazkaria:

Presidenteak OE:

El acta se redacta en el idioma en el que se desarrolla la sesión, castellano y se traduce al euskera por Euskalgintza Bulegoa SL